

# Gogoan hartu damutu baino lehen

Seguru egoteko, ☺  
fidatu zure artekariarekin.

Zure artekariak beti emango dizu informazioa... Ez bazaude seguru, bila gaitzazu.

Hileroko buletina  
Nº 25 / Martxo 2015

## Zerk batzen ditu Ben-Hur, Erantzukizun Zibila eta ezusteko gastuen aurrezteak?



Segur aski, Aste Santuak ikusi duzu Ben-Hur pelikula, AEBetako jeneral eta idazle agnostiko Lewis Wallace-ren (1827-1905) lanean oinarritutako filma. Horren lagun ateo batek bultzatu zuen Jesus existitzen ez zela erakusten zuten frogak munduari erakustera. Bi urte eman zituen idazleak Nazaretoko Jesus ikertzen. Horren existentziaren ebidentziak aurkitu zituen, eztaba daezinezkotzat jo zituenak, eta kristau egin zen. Ondoren, eleberririk idatzi zuen eta, bertan, protagonista, Charlton Heston (1959) sinesgabera, kristau egingo da gorabehera pilo baten ondoren.

### Tirzah, Ben-Huraren arreba

Nahi gabe Tirzahk teila bat bultzatu eta horrek Messala, Erromako gobernadorea, jotzen duenean hasten dira zoritxarrak. Ben-Hur aitortzen da horren errudun, eta atxilotu eta galeretara zigortzen dute.

Gure kaleetan ere eror daitezke gauzak gure etxeetatik, fededunak Aste Santuko prozesioak ikusteko pilatzen direnean. Eta...

Zenbat aldiz ibili zara pilotan? Zenbat aldiz jo du pilotak kristal bat, auto bat edo adineko pertsona bat? Berdin gertatzen zaie zure seme-alabei. **Oraintsu, Cartagenako autobidetik autoan zihon gizon bati kalte-ordainak ematera zigortu dituzte hiru adingaberen gurasoak. Gazteek harriak bota zizkieten, eta horietako batek kopilotua jo eta hil egin zuen.**

Maiz jaurtitzen dira harriak errepidera. Haurrak santuak dira, baina taldean, banakakotasuna galdu eta bihurrikeriak egiten dituzte. Nola egin aurre horrelako neurriko kalte-ordain bati, garai hauetan? Gertakari horiek Etxeko poliza simple batek estal ditzake, edo Erantzukizun Zibileko aseguru batek.

### Aseguruak: zure salbazioa

Gure eguneroko bizitzan gastuak ez dira hain handiak, ezta hain larriak ere. Baina ia denok egin behar izaten diegu aurre etxeko arazo bati, osasun arazo bati edo aho-hortzetako tratamendu bati dentistarenean.

Ezusteko horiek konpontzeko modurik onena da "prebenitza, zure arriskuak aseguraturuta". Polizek ez dute beti dena ordaintzen, baina asko laguntzen dute. Horregatik, oso ongi aztertu behar dituzu konpainiek eskaintzen dizkizuten baldintzak eta horien kostua. Justu behar duzuna estali behar da. Eta, gero, urtez urte eguneratu beharreko estalduren jarraipena egin.

Horretarako eta beste gauza askotarako gaude aseguru-artekariak. Aurrea hartzen diegu zure arazoei, eta ezusteko gastuetatik nola babestu erakusten dizugu. Bihur zaitez Wallace eta Ben-Hur bezala, baina kasu honetan, **bihur zaitez aseguruaren kulturara.**

## Zenbat kostatuko litzaioko Espainiari aseguruak ez edukitzea? Bere BPGd-a halako 14

Hamalau urtean aurreztu beharko genuke, ia, 14 bilioi euro bildu ahal izateko, gure gizartea edozein gertaeratik babesteko. Zorionez, "aseguru industria" k babesten ditu, egun, gertaera posible guztiak.

### Estatuaren laguntzarik gabe

Azken 30 urte hauetan, handituz joan da primengatik jasotako dirua, eta 1986. urteko BPGd-aren %2tik 2012ko %5,5era pasatu da. Azken urte hauetan, berritu eta modernizatu egin da aseguru industria. Aseguratuentzako kalitate eta zerbitzu maila handiak dira horren emaitza.

### Aberastasuna guztiontzat

Hamalau bilioi euroko balioko gure ondasunak babesteaz gainera, beste onura batzuk ere ematen dizkio aseguruak herrialdeari, Unesparen arabera:

- Aseguru-etxeen jarduerak 3,6 milioi euro ematen dizkio Ogasunari eguneroko, Etekinen gaineko Zergagatik.
- Aseguruak 1.000 milioi euro ordaintzen ditu urtero BEZagatik, gero kentzen ez dena; beraz, diru-sarrera da Ogasunarentzat.
- Aseguru-etxeek 431 milioi euro ematen dizkiete Estatuari, urtean, euren langileen aldeko Gizarte Segurantzaren kotizazioengatik (milioi bat baino gehiago egunean).
- Aseguru-artekaritzok enplegu eutsia eta aberastasuna sortzen ditugu Espainia osoan. Eta gure sektoreak tokiko ekonomia sustatzen du.
- Ez-ordaintzeen aurrean -BPGd-aren %10 bestekoa- bere aseguru-etxeen babesari eutsiz erantzun dio krisiari kreditu aseguruak.

Zer falta da? Bizi aseguruak. Ez badaukazu, kontrata ezazu! Modu batera edo bestera, gehien maite duzuna babesten laguntzen baitu: **zure familia.**

## Eskerrik asko zure artekariarekin fidatzeagatik

Begiratu zure ingurura: zure sofa, zure etxea, zure telefono inteligentea... Pentsatu zure seme-alabetan, zure gurasoetan, zure bikotekidean, zure bizitzan... Dena aseguratuta dago. Bi modutara babesten duzu zeure burua: zure kontura (aseguru-etxe batekin zuzenean) edo profesional batekin: aseguru-artekariarekin.

Gero eta gehiago dira zu bezala gurekin fidatzen diren pertsonak. Badakizu zer-gatik?

### Aukerarik onena egiten laguntzen dizugulako.

Administrazio-kontrol batek eta Bitartekaritza Legeak arautzen gaituztelako. Betekizun finantzario eta profesional zorrotzak jartzen dizkigun araudi bat bete behar dugu. Pozik gaude "zorrotz" betetzeaz, horrela babestuago zaudela dakigulako.

Eta Aseguru Zuzendaritza Nagusiaren arabera, "aholkularitza profesionala, espezializatua eta inpartziala, independentzian oinarritutakoa" eskaintzen dizugulako.

### Seriotasuna eta kaudimena

Aseguru-artekariok seriotasunaren, kaudimena eta zerbitzuaren arabera hautatzen ditugu zuretzat aseguru-etxeak. Konpainia akreditatuen produktuak bakarrik eskaintzen ditugu, ez dugulako ezustekorik nahi gure bezeroentzat. Nahiago dugu zerbitzu eraginkor bat dagokion prezioan,

polizatik oinarritzko estaldurak kendu baino.

Lan-sistema horri esker, leialtasun-indize altua dugu, eta gure bezeroak pozik daudenez, ez dute urtero konpainia aldatzen, poliza egokia aurkitu baitute.

### Edozein bidetatik

On line (web, telefono, sare sozialen bidez) edo, nahiago baduzu, off line (betiko bulegoan) kasu egingo dizugu.

Aseguru Zuzendaritza Nagusiak "gure iritzi profesionalaren arabera kontsumitzailearen beharretara ondoen egokitzen diren aseguru-estaldurak eta erakundeak aholkatzerak". behartzen gaitu. Horretarako, tresna teknologiko onenak ditugu, gure esperientziak eta ezagutzak gainera, eta zuretzat merkatuan dagoen aukerarik onena eskuratzeko modua ematen digu horrek.

Hainbat aukera alderatzea eta zuri egokiena eskaintzea da gure lana.

Ezustekoren bat gertatzen bada, ezbehar-agiria betetzen gudu artekariok, eta kalte-ordaina kobratzen duzun arte babesten ditugu zure interesak.

Badakizu independenteak garela; eskaintza zabala dugu, merkatuko aseguru-etxe guztiena; gure aholkularitza doakoa da, Legeak babestuta dago, eta salmenta ondorengo zerbitzua eskaintzen dizugu.

**Eskerrik asko zure artekariarekin fidatzeagatik.**

### Anekdota



### Ezinezko zirkulazio-isunak

Bartzelonako bikote bat botata geratu zen autoan; garabiari deitu zioten, autoa eraman zezan, eta erne! Gehiegizko abiaduragatik isuna jarri zioten, radarrak atzeman zuelako garabia legeak onartutakoa baino azkarrago zihoala. Nola da posible? Andorrako matrikula zuelako eta autoa Espainiakoa zelako.

### Ez zihon autoan

Zure lantoki izandako enpresak bota egin zaitu, baina auto baten gidari garela dioten datuak mantentzen ditu oraindik. Egun batean, konturatzen zara gidabaimeneko puntu guztiak kendu dizkizutela eta zure bizitzan sekula ikusi ez duzun auto baten isun pila bat dituzula. Egia da, Gironan gertatu zen.

### Semaforoa gorrian pasatu, semafororik gabeko leku batean

Okerrena ez da isuna jasotzea semaforo bat laranja pasa izanagatik, gorria aldatzekotan zela; alegia, "aldatzen ari zenean, hain justu ere". Larriena da zure helegitea ezestea "interesdunak emandako arrazoiak — semafororik ez egotea — ez direlako legeak ezarritakoak". Polizia batek eman zion erematea epaiketari, "agente batek Bornetik trena pasatzen dela badio, trena pasatzen da handik" esanda.

### 1 Formulako autokarabana

Kasu honetan, Benicarloko polizia bati jarri zioten isuna, ustez 213 km/h zihoalako autokarabana batean. Radarra hondatuta zegoen, noski, eta demostratu egin ahal izan zuten.

### Ez hazka egin edota orraztu

Bartzelonako errepide batean, ustez telefono mugikorretik hizketan zihoalako atxilotu zuren mossoek Maria Luisa. Berak ez zuen telefonorik autoan, ordea. Berdin da; "mugimendu askatasunik gabe" gidatzeagatik eta "kurba leun batean ilea ukitzeagatik" jaso zuten isuna.

Horren antzeko zerbait gertatu zitzaion Tomasi: 60 euroko isuna jarri zioten belarrian hazka egiteagatik. Agiriaren arabera (10 orrikoa) "esku batekin eusten zion belarriari", belarria "bera bakarrik eusten bada ere".